

Koiuntura di-da batean

2017ko azaroa

Aurkibidea

1. Hazkundera EAEn
2. Enplegua
3. Inflazioa
4. Ekonomia sentimendua
5. Hazkundera ingurunean
6. Aurreikuspenak

Eranskina

1. EAEko ekonomia %2,9 hazi zen 2017ko hirugarren hiruhilekoan.

Eustaten aurrerapenak adierazten du enplegua %2,2 hazi zela urte arteko tasan.

2. Uzta bilketa aurreratu izanak afiliazioaren bilakaera baldintzatu du.

Ekonomiaren gainerako sektoreek gehikuntza erritmoari eutsi zioten, aldakuntza gutxirekin.

3. KPI indizea %2ra hurbildu da, elikagaien garestitzea-rengatik.

Aisialdia eta kultura taldeak ere nabarmen igo zuen bere tasa.

4. Euroguneko konfiantzak datu onena jaso du 2001. urtetik.

Industriaren konfiantza indizeak serie historiko osoaren emaitzarik gorena lortu du.

5. Hirugarren hiruhilekoko ekonomia aurrerapena.

Ekonomia garatuek aurreko epealdiko emaitzak hobetu zituzten.

6. Goranzko zuzenketa txikia munduko ekonomiaren-tzat.

NDFk adierazi du epe laburreko ziurgabetasuna gutxitu dela, baina epe ertainekoa ez.

EUSKO JAURLARITZA

OSASUN ETA EKONOMIA
SALA
Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritza



GOBIERNO VASCO


DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Economía y Planificación

EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA

EAEko ekonomia %2,9 hazi zen 2017ko hirugarren hiruhilekoan

Barne produktu gordina


Urte arteko aldakuntza tasa



Eustatek hiruhilekoka argitaratzen dituen kontu ekonomikoen aurrerapenaren arabera, EAEko ekonomiak bere BPGa %2,9 handitu zuen 2017ko hirugarren hiruhilekoan, urte arteko tasan. Horri esker, aurreko hiruhilekoetan eskaini zuen egonkortasuneko irudiari eutsi dio, 2016an zehar bizi zuen moteltzearen ondoren. Aurtengo lehen hiru hiruhilekoetako datuak ezagututa, pentsatzekoa da urte osoko batez besteko emaitza zenbaki horren inguruan kokatuko dela, Eusko Jaurlaritzaren azken aurreikuspenarekin bat egiten duena. Ikuspegi zabalago batetik, 2016an krisiaren aurreko BPGa berreskuratu bazen, 2017an garbi gaindituko da maila hura lehen aldiz. Eustaten prentsa oharrak oraindik zerbitzuen bilakaera ona nabarmentzen du eta baita gainontzeko sektoreen hobekuntza ere.


Barne produktu gordina

Urte arteko aldakuntza tasa




Barne produktu gordina

2008. urtea = 100



Enplegua kontu ekonomikoetan

Urte arteko aldakuntza tasa




Enpleguari dagokionez, Eustaten aurrerapenak ematen duen informazioak adierazten du lanpostuen sorrera bide onetik doala, urte arteko tasa %2,2an kokatuta dagoelarik, aurreko datua berdinduz eta 2007tik inoiz lortutako mailarik gorena markatuz. Kasu horretan ere aurtengo lehen hiru hiruhilekoetako gehikuntza bateragarria da Eusko Jaurlaritzak egin duen aurreikuspenarekin, urte osorako %2,1eko hazkunde aurreikusi baitu. Urte amaieran zenbaki hori egiaztatzen bada, esan nahiko du urteko batez bestekoan 18.800 lanpostu garbi sortu direla, krisia hasi zenetik eskuratu den daturik altuena baita.


Aurten lortuko den gehikuntzari esker, lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua, urteko batez bestekoan neurtuta, 917.800 enpleguen inguruan kokatuko da eta landunen gehikuntza laugarren urtez jarraian handituko da. Hala eta guztiz ere, oraindik urrun egongo da krisiaren aurretik zegoen enplegu mailatik, garai hartan 985.500 lanpostu inguru zeudelako. Beraz, orduan zeuden guztietatik %7 berreskuratu behar da oraindik eta urteak beharko dira helburu hori lortzeko.

Enplegua kontu ekonomikoetan

Urte arteko aldakuntza tasa

**Enplegua kontu ekonomikoetan**

2008. urtea = 100




LAN MERKATUA

Uzta bilketa aurreratu izanak afiliazioaren bilakaera baldintzatu du

Gizarte Segurantzako afiliazioa guztira


Urte arteko aldakuntza tasa



Gizarte Segurantzako afiliazioaren urriko datuen arabera, EAEn 17.000 lanpostu sortu ziren azken urtebetean eta kotizatzaileen kopurua dagoeneko 940.000 lagunetara hurbiltzen ari da, 2009ko amaieratik jaso den zenbakirik gorena baita. Urte arteko tasa aztertuta, urriko datua (%1,8) aurreko hilekoko (%2,3) baino nabarmen txikiagoa izan zen, baina hurbil dago abuztuaren (%1,9) eskuratu zen hartatik, joan-etorriko bidaia ematen duen bilakaera batean. Izan ere, aurtengo zati handi batez %2,0aren inguruan egon ondoren, irailean ezusteko gorakada izan zuen, aipatu den %2,3 lortuta, orain %1,8ra zuzendu dena. Eraitza atipiko horren arrazoa uzta garaia aurreratu izana da, iraileko datua puztu zuena, baina urrikoa kaltetu.


Gizarte Segurantzako afiliazioa. Emakumeak

Urte arteko aldakuntza tasa




Gizarte Segurantzako afiliazioa. Gizonak


Urte arteko aldakuntza tasa



Afiliazioa industrian
Urte arteko aldakuntza tasa



Afiliazioa zerbitzuetan
Urte arteko aldakuntza tasa



EAEko ekonomia osatzen duten gainerako sektore nagusiei dagokienez, ez da aldakuntza handirik haute-maten hazkunde erritmoan. Izan ere, zerbitzuek %2,3 handitu zuten beren afiliazioa urrian, hots, hirugarren hiruhilekoan baino hamarren bat gehiago. Industria, berriz, %1,6 hazi zen, hirugarren hiruhilekoko datua berdinduz. Azkenik, eraikuntzaren afiliazioa %1,8 igo zen, aurreko bi hiruhilekoetan baino bi hamarren gehiago. Jarduera adarren arabera, ostalaritzaren (%3,6), hezkuntzaren (%7,3) eta jarduera administratiboaren (%3,2) zein osasun alorrekoen (%3,0) sendotasunak bere horretan jarraitzen du. Aitzitik, finantza jarduerak langileen kopurua murrizten segitzen dute (%-3,9).

Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden lagunak


	2016eko urria	2017ko urria	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	920.425	937.437	17.012
Industria manufakturagileak	170.784	173.377	2.593
Merkataritza	136.620	137.602	982
Osasun arloko jarduerak	89.137	91.850	2.713
Administrazio jarduerak	64.485	69.195	4.710
Ostalaritza	63.712	66.023	2.311
Hezkuntza	63.483	65.505	2.022
Eraikuntza	52.942	53.911	969
Lanbide jarduerak	52.802	53.965	1.163
Administrazio publikoa	46.152	46.367	215
Garraioa	39.129	40.121	992
Etxeko langileak	31.062	30.892	-170
Bestelako zerbitzuak	28.444	28.337	-107
Informazioa eta komunikazioa	21.197	21.709	512
Finantza jarduerak	18.798	18.065	-733
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	15.190	12.783	-2.407
Jarduera artistikoak	14.808	15.604	796
Ur horniketa	5.696	5.837	141
Higiezen jarduerak	3.706	3.894	188
Energia horniketa	1.637	1.788	151
Erauzketa industriak	598	569	-29
Lurraldez kanpoko erakundeak	43	43	0

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa.

INFLAZIOA

KPI indizea %2ra hurbildu da, elikagaien garestitzearengatik

KPI indize orokorra
Urte arteko aldakuntza tasa




Kontsumoko prezioen igoera %1,9an kokatu zen irailean, landu gabeko elikagaien portaeraren ondorioz. Produktu horien artean, fruten garestitzea eta lekariaren zein ortuarien prezioen gorakada nabarmena aipatu behar dira, iazko irailean izan zuten jaitsieraren ondoren. Horiek horrela, hileko horren hazkundearekin dagoneko hiru hileko egin ditu KPIak gorantz jarraian.


KPIaren banaketa
Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2015	2016	2017ko iraila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	-0,3	0,0	1,9	1,9
Azpiko inflazioa (%81,8)	0,7	0,9	1,2	1,0
- Elikagai landuak (%14,3)	1,1	0,9	0,0	0,0
- Industria ondasunak (%24,5)	0,3	0,8	0,2	0,1
- Zerbitzuak (%43,1)	0,8	1,1	1,9	0,9
Hondar inflazioa (%18,2)	-4,5	-4,2	5,2	0,9
- Landu gabeko janariak (%7,8)	1,9	2,6	3,8	0,3
- Energia (%10,4)	-8,4	-8,2	5,8	0,6

Azpiko inflazioa
Urte arteko aldakuntza tasak



Hondar inflazioa
Urte arteko aldakuntza tasak



Petrolio upelaren prezioa

Dolarrak



Elikagaiez gain, aisialdia eta kultura taldeak ere lagundu zuen KPIa igotzen, aurreko hilekoaren datuaren aldean puntu bat eta hiru hamarren gehitu zelako, %2,7an kokatu arte. Igoera horren arrazoi nagusia turismo paketeen portaera izan da, iazko irailean jaitsiera askoz ere biziagoak ezagutu zituztelako. Hala eta guztiz ere, aipatu diren elikagaien eta alkoholik gabeko edarien zein aisialdiaren eta kulturaren gorakada horiek neurri batean konpentsatuta geratu ziren energiako produktuen moteltasunarekin, zeren eta aurreko epealdietan ez bezala %5,8 hazi baitziren urte arteko tasan, hots, abuztuan baino hiru hamarren gutxiago.

KPIaren talde nagusiak
Urte arteko aldakuntza tasak. 2017ko iraila


	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	1,9	1,8	1,5
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	1,2	1,2	1,8
Edari alkoholdunak eta tabakoa	1,5	1,7	2,1
Jantziak eta oinetakoak	0,7	0,6	0,6
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	2,7	2,9	1,7
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	-0,6	-0,5	0,1
Medikuntza	0,9	0,8	1,0
Garraioa	3,6	3,4	2,8
Komunikazioak	0,8	0,7	-1,8
Aisia eta kultura	2,7	1,8	1,4
Hezkuntza	1,6	0,8	0,6
Jatetxeak eta hotelak	2,2	2,3	2,6
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	0,3	0,5	0,7

Iturria: INE eta Eurostat.

EKONOMIA SENTIMENDUA EUROPAN


Euroguneko konfiantzak datu onena jaso du 2001. urtetik

Ekonomia sentimendua Eurogunean





Euroguneko ekonomia sentimenduaren indizeak, Europako Batzordeak egin baita, 114,0ko balioa eskuratu zuen urrian, 2001eko urtariletik inoiz jaso duen altuena. Adierazle horren osagai guztiak egoera onean dauden arren, deigarria da industria arloko konfiantzaren datua, serie historiko osoan dagoen gorrena baita, 1990ean hasi zena. Eremu horretako bi herrialde nagusiek etengabeko hobekuntzako perfila eskaini dute azken urteetan. Esate baterako, Alemaniak 114,5eko balioa jaso zuen, azken sei urteko datu-rik onena baita eta industrian zein eraikuntzan eskuratutako emaitza onetan oinarritzen baita. Frantziak, berriz, pausu bat atzera eman zuen urrian eta 110,0ko balioa jaso zuen, kontsumitzaileen konfiantzak okerrera egin zuelako.

Ekonomia sentimendua Alemanian





Ekonomia sentimendua Frantzian



Ekonomia sentimendua Erresuma Batuan

Eurogunetik kanpo, Erresuma Batuak 2014ko erdialdean jaso zituen daturik onenak eta harez geroztik ziurgabetasuneko aldi bati ekin zion, baina 2016ko erdialdetik konfiantza berreskuratzen ari da. Azken datua 110,7an kokatu da, industria eta eraikuntza balio gorenetan edo haietatik hurbil daudela. Hala ere, zerbitzuek eta kontsumitzaileen konfiantzak ez dute irudi baikorrik ematen eta txikizkako merkataritza ezkorra da.

Italiak eskaini du Erresuma Batuen ifrentzua, herrialde hartako sendotasuna txikizkako merkataritza oinarritzen delako, hain zuzen ere, inoizko baliorik gorenetik hurbil baitago. Herrialde horretan besteetan baino konfiantza gehiago galdu zen 2012an eta urte batzuk behar izan ditu balio positiboetara itzultzeko. Azken hilekoetan goranzko joera garbia erakutsi du 111,9ra iritsi arte, azken hamar urte luzeetako onena delarik. Ahultasunen artean, eraikuntzaren eta kontsumitzaileen konfiantzaren zalantzak aipatu behar dira.

Ekonomia sentimendua Italian**Ekonomia sentimendua Espainian**


Espainiak 110,2an kokatu zuen bere indizea, aurreko hilekoan lortutakotik hurbil. Kasu horretan, maximoa 2015eko abenduan jaso zen, baina jarraipenik gabeko datu puntual bat izan zen. 2016ko erdialdetik baikortasunerako joera arina hautematen da. Adierazlearen osagai guztien bilakaera ona nabarmena da, salbuespen bakarria eraikuntza delarik, batez besteko historikotik oso hurbil baitago.

INGURUNEAREN HAZKUNDEA

Hirugarren hiruilekoko ekonomia aurrerapena


AEBko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Txinako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: BEA eta ELGE.

Aurtengo hirugarren kontu ekonomikoen aurrerapenaren arabera, AEBetako ekonomia %2,3 hazi zen urte arteko tasan. Gehikuntza horrek islatzen du kontsumo pribatuan eginiko gastuak (%2,6) eta inbertsio pribatuak (%4,2) hazkunderari eginiko ekarpen positiboa. Beste aldetik, ekarpen negatiboaren jatorria eragile publikoek eginiko gastuan (-0,2) datza. Halaber, inportazioen bultzada esportazioena baino biziagoa izateak indarra kendu zion hazkunderari.

Txinako ekonomiaren hazkundera zertxobait moteldu zen, higiezinaren merkatua eta zorpetzea galgatzeko bideratu diren politiken ondorioz. Bertako gobernuak zorgabetzea bultzatzeko ezarri zituen erreformek ekonomia jarduera apaldu zuten aurtengo hirugarren hiruilekokoan. Hala eta guztiz ere, munduko bigarren ekonomiarik handiena %6,8 hazi zen urte arteko tasan, bilakaera egonkor eta sendo batean.


Europar Batasuneko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Erresuma Batuko BPGa


Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eurostat.


Euroguneko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Frantziako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eurostat.

Hirugarren hiruilekoan, ekonomia europarrak hazkunde leun baina sendoko ibilbideari eutsi zion eta Eurostatek %2,5ean zenbatetsi zuen hazkunde hori, urte arteko tasan, Europar Batasun osoarentzat. Erresuma Batuko ekonomiarentzat argitaratu diren datuek erakusten dute aurtengo bigarren hiruilekotik bizi duen moteltze txikiari jarraipena eman diola. Manufakturen eta zerbitzuen hedatzeak mesedea egin zion hazkundeari hirugarren hiruilekoan eta %1,5ean kokatu. Hala ere, Brexitaren negoziazioen eta haiei lotuta da goen ziurgabetasunaren eragina da moteltze arin horren arrazoi nagusia.

Beste aldetik, Euroguneak Europako batez bestekoaren ibilbidearekin bat egin du eta uztailetik irailera doan epean %2,5eko urte arteko tasa eskuratu zuen. Eurogunearen barnean eta Eurostatek argitaratu duen aurrerapenarekin aztertuta, nabarmendu behar da Frantziak aurtengo hirugarren hiruilekoan izan zuen bizkortze esanguratsua. Frantziako ekonomia susperraldi leuna eta ahula gauzatzen ari zen, baina bigarren hiruilekoko (%1,8) eta, batez ere, hirugarreneko (%2,2) datuek aukera eman dute ekonomiaren susperraldiaz mintzatzeko.

Espainiako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE.

INEk argitaratu duen aurrerapenaren arabera, espainiar ekonomiak %3,1eko hazkunde tasa lortu zuen uztailetik irailera doan epealdian. Tasa hori aurreko hiruilekoan eskuratutakoaren antzekoa da.


Hazkundearen motorra barne eskaria izan zen. Agregatu horren bizitasuna ekonomia eragileen konfiantza handiagoan, arlo pribatuaren ondare irabazian, kreditua lortzeko baldintza hobetan eta enplegua sortzeko testuinguruan oinarritu zen.

NDF-REN AURREIKUSPENAK

Goranzko zuzenketa txikia munduko ekonomiarentzat

Munduko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasak



NDFk urrian ezagutarazi zituen aurreikuspenek ekonomia jardueraren gorakada esanguratsua erakusten dute mundu mailan. Izan ere, BPGa %3,6 haziko da 2017an eta %3,7ra iritsiko da 2018an. Hazkunde tasa horiek gorantz zuzendu dituzte uztaileko txostenean jaso zirenak eta aurreikuspenen hobekuntza orokorra da ekonomia eremu nagusietan. Susperraldiaren sendotzea ekonomia eragileen konfiantzan eta munduko finantza ingurunearen baldintza onetan oinarritzen da.


NDFren aurreikuspen ekonomikoak

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2016	2017	2018	2017	2018
Munduko ekonomia	3,2	3,6	3,7	0,1	0,1
Ekonomia garatuak	1,7	2,2	2,0	0,2	0,1
AEB	1,5	2,2	2,3	0,1	0,2
Eurogunea	1,8	2,1	1,9	0,2	0,2
Alemania	1,9	2,0	1,8	0,2	0,2
Frantzia	1,2	1,6	1,8	0,1	0,1
Italia	0,9	1,5	1,1	0,2	0,1
Espainia	3,2	3,1	2,5	0,0	0,1
Erresuma Batua	1,8	1,7	1,5	0,0	0,0
Japonia	1,0	1,5	0,7	0,2	0,1
Garapen bidean dauden ekonomiak	4,3	4,6	4,9	0,0	0,1
Txina	6,7	6,8	6,5	0,1	0,1
India	7,1	6,7	7,4	-0,5	-0,3
Errusia	-0,2	1,8	1,6	0,4	0,2
Brasil	-3,6	0,7	1,5	0,4	0,2


Iturria: NDF.

Ekonomia aurreratuan BPGa


Urte arteko aldakuntza tasak

**Garapen bidean dauden ekonomien BPGa**


Urte arteko aldakuntza tasak

**AEBetako BPGa**

Urte arteko aldakuntza tasak

**Erresuma Batuko BPGa**

Urte arteko aldakuntza tasak




Hala eta guztiz ere, NDFk ohartarazten du susperraldia ez dela erabatekoa herrialde askotan hazkunde ahula delako eta inflazioa ezarri zen helburuaren azpian dagoelako ekonomia aurreratu gehienetan. Beste aldetik, lehengaien esportatzaileak kanpotik iritsitako diru sarreren galera bizira egokitu behar dira oraindik.

Epe laburrerako ziurgabetasuna gutxitu den arren, epe ertainerako eszenategian arriskuak oraindik beheranzkoak dira. Testuinguru horretan, NDFk politika ekonomikoko eginkizun nagusitzat produktu potentziala areagotzea mozkinen banaketa ekitatibo batekin, susperraldia finkatzea, erresilientzia lortzea eta nazioarteko lankidetzaren areagotzea jotzen ditu.

Espainiako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: NDF.

EAE-KO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2016				2017	
		II	III	IV	I	II	III
BPG	3,1	3,2	3,0	2,9	2,8	2,9	2,9
Familien kontsumoa	3,1	3,4	3,1	2,9	3,0	3,0	—
Administrazioaren kontsumoa	2,2	2,7	0,8	3,0	2,5	1,2	—
Kapital eraketa gordina	3,3	3,7	3,1	3,2	2,9	2,5	—
Barne eskaria	3,0	3,3	2,7	3,0	2,9	2,7	—
Esportazioak	2,2	3,0	1,6	0,3	0,7	1,7	—
Inportazioak	2,2	3,2	1,3	0,4	0,9	1,4	—
Lehen arloa	1,6	2,8	-0,7	-7,3	2,6	-2,7	—
Industria	3,3	2,4	2,9	3,0	2,0	2,3	—
Eraikuntza	1,6	2,7	1,9	1,9	2,1	2,0	—
Zerbitzuak	3,2	3,4	3,1	3,1	3,1	3,2	—
Balio erantsi gordina	3,1	3,1	3,0	2,9	2,8	2,9	—
Ekoiizkinen gaineko zerga garbiak	3,1	3,2	2,9	3,1	3,0	3,0	—

Iturria: Eustat.

Aurreikuspenak. 2017ko urria

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017		2017	2018				2018
	III	IV		I	II	III	IV	
BPG	3,0	3,0	2,9	2,8	2,5	2,3	2,2	2,4
Barneko azken kontsumoa	2,8	2,8	2,8	2,6	2,4	2,2	2,1	2,3
Familien kontsumoa	3,1	3,1	3,1	2,8	2,5	2,2	2,2	2,4
Administrazioaren kontsumoa	1,4	1,5	1,7	1,7	1,7	1,8	1,8	1,8
Kapital eraketa gordina	2,9	2,9	2,8	3,0	3,2	3,4	3,4	3,2
Barne eskariaren ekarpena	2,9	2,9	2,9	2,8	2,6	2,5	2,4	2,6
Kanpo eskariaren ekarpena	0,1	0,1	0,0	0,0	-0,1	-0,2	-0,2	-0,1
Lehen arloa	5,2	3,5	2,1	-2,9	-5,2	-6,3	-8,1	-5,6
Industria	2,6	2,9	2,5	2,9	2,7	2,7	2,8	2,8
Eraikuntza	2,1	2,3	2,2	1,9	1,7	1,7	1,4	1,7
Zerbitzuak	3,1	3,0	3,1	2,9	2,7	2,4	2,3	2,6
Balio erantsi gordina	3,0	3,0	2,9	2,8	2,5	2,3	2,3	2,5
Ekoiizkinen gaineko zerga garbiak	2,8	2,7	2,9	2,3	2,0	2,2	1,9	2,1
Enplegua	2,2	2,0	2,1	2,0	1,7	1,6	1,4	1,7

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAEko ekonomiarako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2017	2018		2017	2018
Confebask	3,0	—	Funcas	2,8	—
Laboral kutxa	2,9	2,7	CEPREDE	2,7	2,5
BBVA	2,8	2,9	Hispalink (BEGren aldakuntza)	2,7	2,4

Iturria: CEPREDE (2017ko urria), BBVA (2017ko iraila), Confebask (2017ko uztaila), Laboral Kutxa (2017ko uztaila), Funcas (2017ko maiatza) eta Hispalink (2017ko uztaila).

ESPAINIAKO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2016				2017	
		II	III	IV	I	II	III
BPG	3,2	3,4	3,2	3,0	3,0	3,1	3,1
Kontsumo pribatua	3,2	3,4	3,0	3,0	2,5	2,5	—
Kontsumo publikoa	0,8	0,7	0,8	0,0	0,5	1,3	—
Kapital finkoaren eraketa gordina	3,1	3,4	2,6	2,2	3,9	3,4	—
- Aktibo finko materialak	3,1	3,4	2,7	2,2	3,9	3,4	—
- Eraikuntzan	1,9	1,8	1,6	1,9	2,9	3,0	—
- Ekipamendu ondasunetan	5,0	5,7	4,2	2,6	5,4	4,1	—
- Jabetza intelektualaren produktuak	2,9	3,2	2,0	2,4	3,8	2,9	—
Nazio eskaria (ekarpena)	2,8	2,9	2,5	2,2	2,3	2,4	—
Esportazioak	4,4	6,5	2,9	4,4	7,3	4,5	—
Inportazioak	3,3	5,4	1,0	2,3	5,7	2,8	—

Iturria: INE.

Espainiako ekonomiarako hainbat aurreikuspen

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2017	2018		2017	2018
AFI	3,1	2,8	Intermoney	3,1	2,7
Axesor	3,1	2,8	Repsol	3,2	3,0
BBVA	3,3	2,8	Santander	3,2	2,7
Bankia	3,3	3,0	Solchaga Recio & asociados	3,1	2,7
CaixaBank	3,1	2,7	BATEZ BESTE	3,1	2,7
Cemex	3,1	2,7	Gobernua (2017-10)	3,1	2,3
CEEM-URJC	3,1	2,7	Espainiako Bankua (2017-09)	3,1	2,5
CEPREDE-UAM	3,1	2,5	Europar Batzordea (2017-05)	2,8	2,4
CEOE	3,2	2,7	NDF (2017-10)	3,1	2,5
FUNCAS	3,1	2,7	ELGE (2017-06)	2,8	2,4
ICAE-UCM	3,1	2,6	The Economist (2017-10)	3,1	2,7
IEE	3,3	2,7	Consensus Forecast (2017-10)	3,1	2,6

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

NAZIOARTEKO EKONOMIA

Ekonomia hazkundea

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2016				2017	
		II	III	IV	I	II	II
AEB	1,5	1,2	1,5	1,8	2,0	2,2	2,3
Txina	6,7	6,7	6,7	6,8	6,9	6,9	6,8
Japonia	1,0	1,0	1,0	1,7	1,4	1,6	—
Kanada	1,4	1,1	1,5	2,0	2,3	3,7	—
Europar Batasuna	1,9	1,9	1,9	2,0	2,1	2,4	2,5
Eurogunea	1,7	1,7	1,7	1,9	2,0	2,3	2,5
Alemania	1,9	1,9	1,9	1,9	1,9	2,1	—
Frantzia	1,2	1,2	0,9	1,2	1,1	1,8	2,2
Erresuma Batua	1,8	1,8	1,8	1,6	1,8	1,5	1,5
Italia	0,9	0,8	0,9	1,2	1,2	1,5	—
Herbehereak	2,2	1,9	2,4	2,7	2,6	3,8	—

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

Consensus Forecast. 2017ko urria

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2017	2018	2017	2018	2017	2018
AEB	2,2	2,4	2,0	2,0	4,4	4,1
Japonia	1,6	1,2	0,4	0,7	2,8	2,7
Kanada	3,0	2,0	1,6	1,9	6,5	6,3
Europar Batasuna	2,2	1,9	1,7	1,7	—	—
Eurogunea	2,2	1,8	1,5	1,3	9,2	8,6
Alemania	2,0	1,9	1,7	1,6	5,7	5,6
Frantzia	1,7	1,7	1,0	1,1	9,2	8,9
Erresuma Batua	1,6	1,4	2,7	2,6	4,5	4,6
Italia	1,4	1,2	1,3	1,2	11,2	10,8
Herbehereak	3,2	2,2	1,4	1,5	—	—

Iturria: Consensus Forecast.